

## .Uko Mugaz Haraindiko Zuzenbideari buruzko III. Jardunaldiak antolatu ditu

2007/08/05

Mondragon Unibertsitateak Mugaz Haraindiko Zuzenbideari buruzko III. Jardunaldiak antolatu ditu. Herritar arruntari eragiten dioten lan-arazoak eta arazo fiskalak, zibilak eta administratiboak aztertuko dira aurten.



- Jardunaldiak Mondragon Unibertsitatearen Irungo Bidasoa campusean egingo dira, **abenduaren 12tik 14ra bitartean, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, Baiona-Donostia Mugaz Haraindiko Agentziak eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Haraindiko Partzuergoak** antolatuta.
- **‘Mugaz haraindiko herritarra; Galdera ohikoenak’** izenburupean egingo dira jardunaldiak eta, besteak beste, osasun-laguntzarekin, hezkuntzarekin, etxebizitzarekin, udal-zergekin, errenta-aitorpenarekin, pentsioekin, etxebizitzaren salerosketarekin eta alokairuarekin eta epaiak betetzearekin zerikusia duten ohiko gaiei erantzuna emango zaie.
- Mugaren bi aldeetako herritarrei eragiten dien eguneroko bizitzako kontuei buruzko **informazio- eta aholkularitza-foro** izatea da topaketaren helburu nagusia.
- Herritarrek errazago **parte har dezaten**, jardunaldietara joaten direnek zuzenean egin ditzaketen galderez gain, aurrez fakultatean edo posta elektronikoz galderak egiteko sistema jarri da martxan.
- Ikastaroak gatzeleraz izango dira eta mugaren **bi aldeetako abokatuek eta zuzenbidean adituek** emango dituzte

### Mondragon Unibertsitateak martxan jarri du Mugaz Haraindiko Zuzenbideari buruzko Jardunaldien III. edizioa.

Arrasaten, 2006ko abenduaren 4an. Mondragon Unibertsitateak martxan jarri du Mugaz Haraindiko Zuzenbideari buruzko Jardunaldien III. edizioa. Jardunaldiak hiru egunetan jarraian egingo dira -abenduak 12, 13 eta 14-, Enpresa Zientzien Fakultateko Irungo Bidasoko Campusean. Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, Baiona-Donostia Mugaz Haraindiko Agentziak eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Haraindiko Partzuergoak antolatu dituzte jardunaldiak. Herritar arruntak lan- eta gizarte-kontuetan eta kontu fiskal, zibil eta administratiboetan mugaz bestalde izaten dituen arazoak aztertuko dira aurtengo edizioan, hain zuzen ere, Bidasoako Campusaren Enpresa Zientzien Fakultateko egoitza den Irungo Ducourau jauregian.

‘Mugaz haraindiko herritarra; Galdera ohikoenak’ izenburupean egingo dira jardunaldiak eta, besteak beste, osasun-laguntzarekin, hezkuntzarekin, etxebizitzarekin, udal-zergekin, errenta-aitorpenarekin, pentsioekin, etxebizitzaren salerosketarekin eta alokairuarekin eta epaiak betetzearekin zerikusia duten ohiko gaiei erantzuna emango zaie.

### Jardunaldiak

Aldameneko herrialdean bizi diren edo lan egiten duten herritarrei eragiten dien mugaz haraindiko gaiei buruzko informazioa ematea da jardunaldien helburua. Azken finean, mugaz bestaldeko herritarrei

eragiten dien eguneroko bizitzako arazoei buruzko informazio- eta aholkularitza-foro izatea da helburua. Mugaren bi aldeetako herritarren arteko joan-etorriei buruzko azken datuek adierazten dute joan-etorriok areagotu egin direla azken urteotan. Kontuan izan behar da mugak desagertu izanak ez duela eragin bi herrialdeetan aplika daitekeen araudiaren uniformetasun automatikoan.

Ikastaroa hiru jardunalditan egingo da. Lehenengo egunean lan- eta gizarte-arazoak aztertuko dira, bigarrenean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta udal-zerbitzuei buruz arituko dira, eta azkeneko egunean etxebizitzaren inguruko arazoak aztertuko dira.

Abenduaren 12an 16:00etan hasiko da jardunaldietako lehenengo saioa, eta lan-arazoak eta gizarte-segurantzarekin zerikusia duten arazoak azalduko dira, esaterako, kaleratzeak, bajak eta pentsioak. Yael Brugos abokatuak emango du hitzaldia. Atsedenaldea egin ostean, 18:00etan hasiko da bigarren saioa. Bigarren saio horretan, osasun-laguntza eta laguntza publikoak jorratuko dira Hendaiaiko Gizarte Ekintzako Zentro Komunaleko Zuzendari Cyril Barthe-ren eta Hendaiaiko Udaleko Gizarte Gaietarako Alkateorde Maite Alcelay-ren eskutik.

Hilaren 13ko lehenengo saioa ere 16:00etan hasiko da, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz hitz egingo du Yael Brugosek. 18:00etatik aurrera udal-zerbitzuak eta -jarduerak aztertuko dira, eta Square Hábitat Credit Agricoleko higiezineta aholkulari Edurne Zugasti eta Hendaiaiko Zerbitzuetako Zuzendari Nagusi Serge Peyrelongue arduratuko dira horretaz.

Jardunaldietako azken eguna ere 16:00etan hasiko da, eta aldameneko herrialdeko etxebizitzaren alokairu-, erosketa- eta finantzaketa-ezaugarriak aztertuko dira. Square Hábitat Credit Agricoleko higiezineta aholkulari Edurne Zugastik eta eta Iuris Muga Mugaz Haraindiko Behatoki Juridikoko abokatu eta kide Francisco Lopez de Tejadak emango dute hitzaldia. Azken saioa Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradun eta Eurobaskeko Idazkari Nagusi Juan José Alvarezen eskutik etorriko da. 18:15ean hasita, auziei eta epaiak betetzeari buruzko hitzaldia emango du Juan Jose Alvarezek, hain zuzen ere, kautelazko neurrien eta enbargo-prozeduraren aplikazioari buruzkoa.

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

## V K Comunicación

*Informazio gehiago:*

1. **Xusane de Miguel Ortiz**
2. **Tel.:** 944 01 53 06. Mugikorra: 629 75 33 36.
3. **Posta elektronikoa:** [xusane@vkcomunicacion.com](mailto:xusane@vkcomunicacion.com)